

**2011KO URRIAREN 28AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO
OHIKO BILERAREN AKTA**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita zortzia.

HILABETEA: Urria.

URTEA: Bi mila eta hamaika.

HASIERAKO ORDUA: Goizeko zortzietan.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Koldo Agirre Mujika

BILDUAK: M^a Mar Celaya González

Aitor Aldasoro Iturbe

Josi Insausti Mujika

ETORRI GABEAK: Fernando Boada González

Unai Baztarrika Otegi

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2011ko irailaren 23ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute.

2.- HAUTESKUNDE KARTELAK JARTZEKO TOKIAK. Hauteskunde kartelak jartzeko tokien banaketa.

Lehenik eta behin gogorarazi dira hauteskunde kartelak jartzeko tokiak, hau da:

1. Igartza Oleta, 8 zenbakiaren parean / Frente a Igartza Oleta 8.
2. Dolarea kalea, parkearen parean / Calle Dolarea frente al parque
3. Barrendain plaza / Plaza Barrendain.
4. CAFen ondoko parkean / Parque antiguas casas C.A.F.
5. Ezkiaga Etorbidea, 3. zenbakiaren parean errearen barandilan / Frente a Ezkiaga Etorbidea, 3 en barandilla rio.
6. Bideluze zubiko baranda / Barandilla del puente de Bideluze
7. Mariarats – Arantzazu.
8. Barandiaran parkearen goialdean / Parte arriba parque Barandiaran .

Jarraian ezagutzera eman da, Tolosa eskualdeko hauteskunde batzordearen erabakia, hauteskunde kartelak jartzeko tokien banaketa udalei

lagatzearena. Banaketa egiteko garaian kontutan izan behar da, hauteskunde berdinetan partidu, federazio edota koalizioek izandako emaitzak, zirkunskripzio berean. Adierazi da baita ere, AMAIUR-en kasuan, bere garaian, EUSKO ALKARTASUNA, ARALAR eta ALTERNATIBAK izandako emaitzen batuketa eginez kalkulatu dela, banaketa egiteko.

Ezagutu ondoren, zein kandidatura aldarrikatu diren, banaketa ondorengo izango litzateke:

8 gune eta bakoitzean 6 toki.

- **PSE-EE (PSOE)** 39,9% → 19,15 puntu → $8 \times 2 = 16 + 3 = 19$ toki.
- **EAJ-PNV** 24,32% → 11,67 puntu → $8 \times 1 = 8 + 3 = 11$ toki.
- **PP** 14,94% → 7,17 puntu → $8 \times 1 = 8 - 1 = 7$ toki.
(EA + ARALAR)
- **AMAIUR** 7,95%+5,41% → 6,41 puntu → $8 \times 1 = 8 - 1 = 7$ toki.
(EB-B)
- **IU-LV: EZKER ANITZA** 4,94% → 2,37 puntu → $8 \times 1 = 8 - 6 = 2$ toki.

-BESTEAK:

- **UPyD** 0,82% → 0,39 puntu
 - **PUM+J** 0,2 % → 0,096 puntu
 - **PACMA** 0,34% → 0,16 puntu
- } 0,64 → 2 toki

- **Unificación comunista** 0%

TOTAL: 48 toki

- **EQUO** 0%

Horren ondorioz, aho batez, ondorengo banaketa egitea erabaki da:

1 - PSE-EE (PSOE); 2 - EAJ-PNV; 3 - PP; 4 - AMAIUR 5 - EZKER ANITZA 6 - Besteak

1.- Igartza Oleta 8 parean / Frente a Igartza Oleta 8

1	1	1	2	3	4
---	---	---	---	---	---

2.- Dolarea kalean, parkearen parean / Calle Dolarea, frente al parque

1	1	1	2	3	4
---	---	---	---	---	---

3.- Barrendain plaza / Plaza Barrendain

1	1	2	2	3	4
---	---	---	---	---	---

4.- CAF-eko parkean / Parque antiguas casas de CAF

1	1	2	2	3	4
---	---	---	---	---	---

5.- Ezkiaga etorbidea, 3 zk.aren parean errearen barandilan / Frente a Ezkiaga etorb. 3, en barandilla río

1	1	1	2	3	5
---	---	---	---	---	---

6.- Bideluze zubiko baranda / Barandilla del puente de Bideluze

1	1	2	2	3	4
---	---	---	---	---	---

7.- Mariarats- Arantzazu

1	1	2	3	4	6
---	---	---	---	---	---

8.- Barandiaran parkearen goialdean / Parte arriba parque Barandiaran

1	1	2	4	5	6
---	---	---	---	---	---

Aitor Aldasoro jaunak esan du, maiz gertatzen dela, gune horietatik kanpo kartelak jartzea eta hori kontrolatu egin beharko litzatekeela.

Alkate jaunak erantzun dio, berak bere taldearekiko erantzukizuna hartu dezakeela, baina beste taldeena ezin duela kontrolatu.

3.- KONTRATUA LUZATZEA. AYTASArekin kontratua luzatzea.

Ezagutzera eman da 2011ko urriaren 1ean, Udalak AYTASArekin J. M. Arana kaleko 1. Areako 1 Unitate Egikaritzeko Birgaitze Plan Berezia gauzatzeko kudeaketa lanak egiteko duen kontratua amaitu egin del. Baldintza pleguaren arabera beste urte betez luzatzeko aukera dago, AYTASAk 2011ko irailaren 5ean kontratua luzatzearen aldeko idatzia aurkeztu du eta Arana kalea birgaitzeko batzorde bereziak luzatzeko proposamena egin du.

Horren ondorioz, aho batez erabaki da, 2012ko urriaren 1erarte aipatutako kontratua luzatzea, 2011ko urriaren 1eko atzera eraginarekin eta egungo prezioari KPI erantsiz.

4.- 8. SEKTOREKO B1 LURSAILAREN SALEROSKETA KONTRATUA. Jarraitu beharreko ekintzak.

Ondorengo ezagutzera eman da:

Aipatutako kontratuaren inguruan, Kontuhartzaileak ondorengoaren berri ematen du:

1.- 2.009ko uztailaren 30eko datarekin AU 24 Edificios, S.L. enpresarekin Udalarena den 8. sektoreko B1 lursailaren salerosketarako sinatu zen eta

bertan adierazitakoaren arabera, erosleak 34.800,00 € (BEZ barne) ordaindu zituen sinaduraren egunean.

2.- 2.010eko uztailaren 30ean 82.600,00 € (BEZ barne) ordaindu behar ziren, baina 15.000,00 euroko ordainketa egin eta bestearengatik gerorapena eskatu zuen 2.011ko uztailaren 31ra arte. B11/00255 ebazpenaren bidez onartu zen.

3.- Kontratuaren laugarren klausulan xedatutakoaren arabera, eskritura publikoaren formalizazioa, kontratuaren gauzatzearen egunetik kontatzen hasita, gehienez bi urteko epean burutu behar zen, beraz, 2011ko uztailaren 30a baino lehen. Epe hori igaro da eta oraindik AU-24 Edificios, S.L. enpresak ez du ordaindu geroratutako kopurua.

4.- Hirugarren klausulan xedatutakoaren arabera, "alde erosleak ordainketa betebeharrak beteko ez balitu, alde saltzaileak hura betetzea exijitu dezake... edo eskubide osoa izango du salerosketa kontratua amaitzeko; azken hau gertatuko balitz alde erosleak ordura arte ordaindutako kopuruaren %100 galduko du ... kontratu honetan aipatzen den onibarra berriz ere saltzailearen jabetzakoa izango litzateke oraingo izaera juridiko berberean".

Xedatutakoaren arabera, kontratua amaitu ahal izango litzatekela jakinarazten da, hala ere, kontratua bertan behera utzi baino lehen, 2011ko irailaren 23an Hazienda Batzordeak egindako proposamenaren arabera, aho batez erabaki da, ordainketa egiteko 15 eguneko azken epea ematea eta ordainketarik egin ezean, kontratua berehala bertan behera utziko litzateke.

5.- ESKAERA ETA GALDERAK.

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko zortziak eta erdietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.